

KONTALARIEN JARRERA ETA HIZKUNTZ EGOKITZAPENA HAURREI KONTATZERAKOAN



Pello Añorga.

Ipuin kontalaria eta idazlea. Mondragon Unibertsitateko irakaslea

Egunon denoi!

Hona nire hitzaldiaren titulua: KONTALARIAREN JARRERA ETA HIZKUNTZ EGOKITZAPENA HAURREI KONTATZERAKOAN. Alde batetik diot "HAURREI KONTATZERAKOAN", zeren egingo ditudan hausnarketak haurren ingurukoak baitira. (Dena den, nahiz eta haurrentzako kontaketa oinarritu, helduentzat ere baliagarriak izango direla uste dut). Eta bestetik: "JARRERA ETA HIZKUNTZ EGOKITZAPENA", zeren ahozko kontalariak jarrera komunikatzailea duen heinean, testua egokitu behar duelako testuinguru jakin bakoitzera; areago, gurea bezalako gizarte diglosiko batean, eta hain hizkuntz maila ezberdinak dituen entzulearengana iritsi nahi badu.

ETA HASI BAINO LEHEN, BI OHAR EGIN NAHI NITUZKE :

Bat: jakin ezazue ni ez naizela mintzatuko hemen nola tratatu behar diren euskalkiak eskolan. Lehengo egunean irakasle batek hona etorri behar nuela jakin zuenean, zera esan baitzidan: "Zein ondo, horrela jakingo dut zer egin euskalkiarekin". Baina ez, ni ez naiz mintzatuko horretaz. Hori didaktikari dagokio edota pedagogia arloari, eta ni ez naiz pedagogo eta ez naiz sekula aritu didaktikan. Ni aritu naiz kontatzen, eta horretan daukat esperientzia. Aritzen naiz komunikatzen, ez hizkuntza erakusten. Zeren ahozko kontaketa esperientziak erakutsi dit hobeto komunikatzeko beste arlo batzuk direla askoz ere premiazkoagoak. Beraz, zuetako batzuek euskalkiei buruzko kezka nahi baduzue argitu, beste norbaitengana jo beharko duzue. Edota beste foro bat antolatu.

Eta bi: aipatu nahiko nuke gauza bat urgentea dena: izugarrizko nahaste-borrastea dugula ahozko kontaketa inguruan. Eta Mintzola nola den plaza egokia ahozkoaz hausnarketa egiteko, lizentzia hartuko dut une batez.

Ulertzeko esan nahi dudana, anekdota bat kontatuko dizuet: behin aritu nintzen kontatzen kultur etxe batean inongo sostengurik gabe, ez dramatizazio, ez mozerro eta ez deus. Ipuin saioa bukatu eta horra non esaten didan haur batek:

–Noiz hasiko da ipuina?

Haur harentzat, nonbait, ipuina kontatzea zen saltinbankiak ikustea, eta ni saltinbankia ez izaki. Eta haren dezepzioa! Arraioa!

Hona beste adibidea: leku batean kontatzen aritu eta gero, guraso batzuek honako komentario hau egin zioten kultur teknikariari: ia benetako ipuin-kontalaria zein egunetan zetorren. Izan ere, egun batzuetan joaten ziren kontalari batzuk mozerrotuak, hipermerkatuetan ikusten direnen antzera, eta ni nengoen jantzita normal, normalegi haien irudimenarentzat, eta ez *Mickey Mouser*en edo *Garfio* kapitainaren mozerroarekin. Guraso haiek ez zekiten ni ez naizela *Pluto*, Pello baizik, to!, eta kontatu egiten ditudala ipuinak, eta ez naizela pertsonaia (edota, behinik behin, saiatzen naizela ez izaten pertsonaia).

Beste hirugarren adibidea jarriko dizuet: behin irakasle batek deitu zidan ikastetxetik, ipuinak kontatzera joateko. Azpimarratu zidan haurrek parte aktiboa izatea nahi zutela, eta ez pasiboa. Eta nire artean pentsatu nuen: haurrak isilik daudenean entzuten, batere mugitu gabe, zirkinik egin gabe, ez al dute parte aktiboagoa izaten, parte hartzera behartzen ditugunean baino? Isilik egotea jarrera pasiboa ote da?

Eta hau zergatik gertatzen da? Bada, kontaketa oso ESTILO eta FORMATU ezberdinak daudelako, eta oso jarrera estetiko eta etika ezberdinak. Kontaketa izenean, batzuk ibiltzen dira txotxongiloak erabiltzen, besteak antzerkia egiten, besteak pailazoarena egiten, besteak Walt Disneyren pertsonaiak imitatzen: *Pluto*, *Donald* ahatea eta *Goofy*, besteak Magia egiten, besteak bertsoak paratzen, besteak kontatzen espazio eszeniko batetik, eta besteak kontatzen espazio arruntetik, era sinplean, mozerro gabe, oso agertoki ezberdinetan. Formatu asko dagoelako ipuinak kontatzeko, hizkuntzak hainbeste; eta oso espazio ezberdinak plazaratzeko, jarreraren arabera: hipermerkatua, ospitalea, ikasgela, liburutegia, antzokia, taberna edo oheburua. (Oheburua, bai, oheburuan ere aritu gaitezkeelako kontaketa lagunaren ondoan, intimitate osoan, otoitzean bezala, ia xuxurlan).

Horrek guztiak zera dakar gaur egun: izugarrizko nahaste-borrastea. Izen beraren atzean, oso kontzepzio, estetika, hizkuntza eta jarrera ezberdinak daude ezkutuan. Areago bizi garen gaurko testuinguru kulturalan lehenesten badugu

estetika bat, non begiak daukan funts jainkotiarra, belarriaren kaltetan. Hau da, lehenesten bada ikusgarritasuna. Zoritxarrez, jendea ez da konturatzen formatu bakoitzak bere baliabideak dituela. Oso ezberdina da kontatzea pailazoaren espazio eszenikotik, edota espazio biluzitik. Ez gara konturatzen estetika batzuek intimitatea behar dutela komunikazioa bermatzeko. Nire artea, esaterako, oso sinplea da. Baina isiltasuna behar dut komunikatzeko. Oso jarduera pobrea da, sinplea; ez daukat eszenografiarik, baina niretzat espazio huts hori ez da pobrea, aberatsa baizik. Niretzat sinpletasun hori ez da sinplekeria, jarrera estetiko bat baizik, hautua, konpromisoa, engaiamendua. Pianoa entzuteko intimitatea behar den bezala, halaxe ahozko kontaketa batzuekin ere. Zoritxarrez, modu berean tratatzen dira pailazoak, antzezleak, magoak, titiriteroak eta ipuin kontalariak, eta espazio bera atontzen denentzat, estetika bera erabiliko balute bezala. Eta hori gogorra da, GENERO guztiak berdin tratatzen ditugulako. Akaso, musika arloan sartuta, modu berean antolatzen al da piano saioa eta rock kontzertua? Poesia emanaldi intimoa antolatu behar al dugu Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldia bezala?

Begira lehengo urtean zer idatzi nuen *Behinola*¹ aldizkarian: "... bizi garen gizartean, oso denbora gutxi dago entzuteko. Espazioa ere, gaur egun, ez da diseinatzen elkar entzuteko. Badirudi, organo ahalguztidun bakarra existitzen dela eta hori da begia. Eta ahozkoasuna landu nahi badugu, ezinbestez, begiaz gainera belarria ere kontuan hartu beharko genuke, elkar entzuteko espazioa diseinatzekoan".

Era sinplean kontatzeak, hau da, hauskortasunetik, kontzentrazio handia eskatzen baitu: espazioan soinurik ez izatea, ez dispertsio fokurik, eta abar. Zoritxarrez, gaur egun, espazioek izaten dute zarata gehiegi: nola akustikoa hala bisuala, kontzentrazioaren kalterako. Kontatzeko formatu batzuek, agian, ez dute behar kontzentrazio handirik, baina beste batzuek bai. Isiltasunaren eta entzumenaren kalitatea nola bermatu baina, baldin eta sartzan baditugu zaku berean hainbat kontaketa formatu? Horregatik, etorkizunean, garrantzitsua izango da jakitea hainbat genero eta estilo daudela ahozko kontaketa, eta estilo bakoitzaren arabera jakin behar dugula antolatzen espazioa; eta jakin garatzen entzumenaren estetika, ikusmenarena hainbeste. Gizakia bizitzaren erdigune ez den bezala, begia ere ez delako erdigune. Eta begiak, etorkizunean, itsutu nahi ez badu, belarriaren sostengua beharko du, ezinbestez.

Gaurkoz, baina, utz dezagun espazioaren zein formatuaren gaia eta egin dezagun galdera: kontalari batek zer testu darabil? Zein hizkera? Batua? Euskalkia? Eta orain, hemen, nire testigantza agertuko dizuet. Testigantza ez ezik, adieraziko dizuet zeini eman izan diodan garrantzirik gehien komunikatzeko momentuan; eta, bidenabar, urte hauetan guztietan zertaz konturatu naizen.

¹AÑORGA, P. "Ahozkoasuna eta haur literatura". *Behinola* 24, 2011ko azaroa, 21-28 or.

Begira, orain dela 28 bat urte edo, esan nionean Lurdes Iriondori (Xabier Leteren emaztea zenari) ipuinak kontatzen hasi behar nuela Euskal Herrian barrena, zera esan zidan: "*Baina, horretarako, Pello, Euskal Herrian barrena kontatzeko, euskalkiak kontuan hartu beharko dituzu*". Nire artean pentsatu nuen: "*Arraioa, hori dena kontuan hartu behar al dut? Tokian tokiko hizkera? Euskalkia?*". Agudo, baina, kontatzen hasi ahala, konturatu nintzen ez zela hain beharrezkoa. (Gogoan har ezazue, orduan, eskola publikoetan antolatzen zirela saiorik gehienak, oso giro erdaldunetan. Urte haietan, gogoan hartu, euskara sartzen hasi zirela ikastetxeetan, zerotik abiatuta, euskara hutsean aritzeko. Gogoan ditut, batzuk aipatzearen: Eibarko Amaña, Irungo Belaskoenea, Bilboko Otxarkoaga, Atxuri, San Frantzisko... Arabako Murgia, La Puebla; Nafarroako Auzberri; Tafallako ikastola, Lodosa, Zangoza... eta zer-nolako begirada zorrotzez begiratzen ziguten bertako irakasle erdaldunek). Leku horietan nola hitz egin? Garbi zegoen batuaz hitz egin behar nuela eta ondo ahoskatu eta enfatizatu. Orduan, gainera, hasi berria zen euskal telebista, dena batuaz hitz egiten. Irakasleek ere batuan hitz egiten zuten ikastetxeetan, eta haurrak ohituta zeuden batua entzutera. Beraz, haur guztiengana iristeko eta, zer esanik ez, adin txikikoengana, komunikatzeko erarik errazena batuaz mintzatzea zen (eta da). TESTUA gureganatu, barneratu eta batuaz mintzatu: dela Txorierrin, dela Arratian, dela Baztanen edo dela Debagoiengan.



TESTUA

Behin puntu honetara iritsita, TESTUAZ nahi ditut gauza batzuk aipatu. Jakin ezazue idatzia dagoen testua erabiltzen dugula normalean kontalariok. Ez gara aritzen aspaldiko kontalariak bezala entzun zutena kontatzen, hots, belarritik ezpainetara, baizik idatzitik belarrira. Gu *neokontalariak* gara, Gutenbergen ondorengoak, eta inprimatutako testua erabiltzen dugu edota digitalizatuta dagoena. Batzuetan testua egongo da batuan idatzia, besteetan euskalki batean, baina hori da gutxiena. Zergatik? Bada, testua (idatzia dagoena) ez delako zerbait finkoa guretzat. Hitza dago itzalean harrapatua, liburuaren orriko presondegian, eta gure lana da airea ematea hitzari, arnasa, gorputz berria, mugimendua... Horregatik, ezinbestez, kontalari bakoitzak egiten du gauza bat: testua interpretatu. Ondorioz, nahiz eta kontalari bakoitzak ipuin bera kontatu, sekula ez da izango bera. Berdina bai, baina ez bera. Izan ere, nahiz eta ipuin bakoitzak eduki gorputz identifikagarria, kontalari bakoitzak ematen baitio bere azentua, airea, gorputza, arnasa eta begirada partikularra, hots, hizkera. Horregatik, agian, kontalari batek erabiliko du hizkuntza jasoagoa eta besteak kolokialagoa. Baina zer da garrantzitsuagoa? Testua ez da monolito bat. Bizi nahi badu, biziberritu beharra dauka aldian aldiko giroko komunitatean txertatuta.

Nire kasuan, gainera, testua izaten da abiatzeko dudan eskeletoa, zeina haragitzen joaten den saio bakoitzean, entzuleekin batera. Saioetan zehar, kontua joaten da hitzak bereganatzen, adjektiboak, jergak, pausak, azentuak, aromak eta abarrak, ezer inposatu gabe, komunikazioa lagun, bat-batean, kontalariaren eta entzulearen arteko harremanean oinarrituta. Eta nire kasuan, ni kontatzen ibiltzen naizen komunitatea oso diglosikoa da, erdaldun asko dago, eta esan behar dut euskalkiek ez dutela lehentasuna. Nahiko lan badaukat euskara hutsez denengana iristeko. Agian, kontatzen ibiliko banintz leku berean beti (jo dezagun Oiartzunen), badakit bertako azentua hartuko luketela nire kontuek. Baina nire kontuek jakin behar dute bizitzen Otxarkoagan, Diman eta Garraldan, eta erabili behar dudana hizkera, nahi eta nahiez, denengana iristeko modukoa izan behar, hots, batua. Batek esango du neutroa. Neutroak ez du izan nahi aseptikoa edota plastikozkoa, baizik komunikagarria: lilura sortzeko abilezia duena, harridura, poza, tristura, enpatia, komunioa...

AHOZKOA ERREGISTROA

Hala eta guztiz ere, nahiz eta batua erabili kontatzeko, denboraren poderioz konturatu nintzen (Lurdes Iriondo gogoan) idatzizko erregistroak baino gehiago ahozkoak erabili behar nituela. Izan ere, kontatzerakoan ahoz aritzen gara, eta ahoz aritzerakoan belarria da ezinbesteko organoa. Zoritzarrez, testuak, normalean, ez daude prestatuak ahots gora irakurriak edo kontatuak izan daitezten. Edo, beste hitzetan esateko: ez daukate landua ahozkotatuta. (Orain dela urtebete

eskas, *Behinola*² haur literaturako aldizkarian aipatzen nuen nola, garai batean, kontakizun gehienak izaten ziren prestatuak jendearen aurrean kontatuak izateko edota errezitatzeko. Eta aipatzen nuen nola Hans Christian Andersen-ek (1805-1875) kontatu egiten zituen ahots gora ipuinak argitaratu aurretik, eta behin eta berriro zuzendu, harik eta tonua aurkitu arte: ahotsa, erritmoa eta abar. Behin eta berriro kontatu, harik eta ahots bizia topatu arte: mintzoa). Hona, 1846an, haren egunerokoan, Italian zegoelarik, zer idatzi zuen: *“Egun guztia pasatu dut idazten; eta orain minduta daukat mihia, guztiz minduta”*. Anderseni, nonbait, ipuinak idazterakoan ez zitzaion nekatzen eskua, baizik mihia.

Tamalez, oso liburu gutxi dira gure artean modu horretan idatzi izan direnak. Normalean, ahozkotasanaz ahaztuta, oso arreta gutxi eskaintzen diogulako belarriari. Horregatik, ez da batere harritzekoa konturatzea, ondo konturatu ere, prosa bikainaren jabea den liburuak, sarritan, ez duela funtzionatzen haurren aurrean jarduteko. Txitean-pitean ahots gora jardunez gero, zangopilatu egiten gara, mihia baldartu, begiak lausotu... eta zera ondorioztatzen: liburuak ez duela funtzionatzen ahots gora jarduteko. Eta nola, bada, bestela? Ezin. Nola funtzionatuko du baldin eta idazleak ez badu prestatu esateko izan dadin?

Adibide gisa, irakurriko dizuet testu bat, zeinean landu beharko litzatekeen gehiago ahozko erregistroa, esateko erabil dadin. Hona pasartea³: *...gertakizun polita iduri zitzaion uste gabe ikusi zuena eta sugeari esnea atsegin zitzaiola jakinik, jokoan sartzea erabaki zuen. Bazuen txabola aurrean txerrientzat egindako aska bat aspaldian ibiltzen ez zuena eta borda aldera baztertuz gazura ezarri zion. Laster ikasi zuen narraziak bidea eta elkarrenganako beldurra galdurik txistu eginez ekarrarazten zuen egunero artzainak sugea. Bi edo hiru urtez iraun izan behar zuen bien adiskidantzak...*

Eta orain irakurriko dizuet, esateko prestatua dagoena⁴:

"Baserri handi batean, mutiko txiki-txiki bat bizi zen; Perutxo zuen izena. Egun batean eskolarik ez eta amari esan zion:

-Ama, banoa belarretara jolasean ibiltzera.

-Ongi da, baina kontuz behiaren inguruan ibili gabe.

-Bai, ama...

Eta abiatu zen Perutxo korrika batean. Belardira iritsi eta zilipurdika hasi zen aurreraka eta atzeraka; salto txikiak eman zituen eta ziri-bueltak. Baina konturatu orduko behi handia zegoen tokira inguratu zen. Hau lasai-lasai ari zen belarra jan

² AÑORGA, P. "Ahozkotasuna eta haur literatura". *Behinola* 24, 2011ko azaroa, 21-28 or.

³ SATRUSTEGI, J.M. (1983). *Axelko eta Otsoko*. Zamudio: Gipuzkoako ikastolen elkarte, 63 or.

⁴ GALTZAGORRI ELKARTEA. (2007). *Bularretik mintzora*. Zarautz: Itxaropena, 30 or.

eta belarra jan, ezerekin ere konturatu gabe. Halako batean, "AUMMM" Perutxo txikia irentsi zuen".

TESTUINGURUA

Testuaz eta ahozko erregistroaz gain, agudo konturatzen nintzen beste eremu bat lantzea eta kontuan edukitzea ere ezinbestekoa dela: momentua, hots, GIROA. Horretarako, Koldobika Jauregi⁵ eskultorearen adierazpen bat irakurriko dizuet: *"Indian badago hitz bat, rasa deritzana, antzerkian sarri erabilia, eta giroa (atmosfera) adierazteko balio duena. Hain zuzen, artista baten obrarentzat rasa hori, giro hori jasotzea baita garrantzitsuena. Gaur egun, denez teorizatzen dugu, baita arteaz ere: gehiegi. "Rollo" handiak idazten dira eta liburu asko artistaz zein obraz. Eta nik uste dut, azken batean, stop egiten jakin behar dugula eta rasa, giro, atmosfera hori atxiki."*

Eskultore batek horrelako garrantzia ematen badio atmosferari (giroari), nola ez diogu emango guk? Nola sortu giroa, baina? Garbi dago, hortaz, espazioak paper funtsezkoa jokatzen duela. Espazioak zer-nolako harrera eskaintzen digun, horrek guztiz baldintzatu lezake saio bat. Horretarako, entzulearen testuinguru hurbila ezagutzea garrantzitsua izango da guztiz. Esan nahi dut, haurrari kontatu nahi badiozu, behinik behin, ezinbestekoa izango dela haurraren testuinguru hurbila ezagutzea, hots, haurraren unibertso afektiboa.

Horra zer idatzi nuen orain dela bi urte HUHEZIn⁶, haurrentzako kontaktari buruzko koordenadak ematerakoan: *"Adin hauetan kontatzeko, nahitanahiez, haurraren testuinguru hurbila ezagutzea ezinbesteko baita, hots, "Haurraren Garapen Hurbileko Eremua" (Vygotsky). Esan nahi da haurren erreferentzia konkretuen jabe izatea. Zeren eta haurra eramanez nahi badugu lurralde ezezagun batera, lehenik eta behin (ez dadin senti arrotz) ezagutu beharko baitugu zein den haren eremu afektibo konkretua, izen eta guzti: gurasoena, bizilekuarena, lagunena, eta beste hainbatena.*

Behin ezagutuz gero haurraren eremu hurbila, egokitu dezakegu ipuina haren koordenadetara eta, ondorioz, urrunago joan, erreferentzia konkretuetan barrena".

Adibide batzuk eman ditzadan, ikusteko nola erabiltzen dugun eremu afektibo hurbil hori ahozkoa hurbilduta, hots belarrira, giroa zein testuinguru kontuan edukirik:

–Egin dezagun kontu, nik badaukadala testu bat, ipuin bat eta, une honetan,

⁵ JAUREGI, K. "No concibo la creación si no es en libertad". Iñaki Mendizabal. *Deia* 12465, 2012ko abuztuaren 25ean

⁶ AÑORGA, P. "Ipuinen bidezko esplorazioa, edo kontuak kontatzeko koordenadak", in BARANDIARAN, A. LARREA, I, LOPEZ DE ARANA, E. (2011). *Haurraren ongizatea II: hezkuntza proposamenak*. Arrasate: HUHEZI, 103-142 or.

honela hasten naizela kontatzen: "Gaur goizean hona etortzerakoan, hasi naiz ikusten hemengo espazioa (aipatu gelako objektu batzuen izenak) eta hasi naiz entzuten momentua, orain bezala. Entzuten (egin isiltasun luzea)? Entzuten duzue? (Jarraitu isilean, pausa luzea eginez). Bada, jakin ezazue entzuten hasi naizenean hemengo momentua, gogoratu naizela ipuin batekin, eta orain kontatuko dizuet. Nahi duzue entzun?..."

Finean, zer egin dut? Bada, orainaldira eraman testua, presentzia hutsera, hots, *presentera*, orainaldira, ipuinaren barruan sartuz areto honetako BEGI-PAISAIA ez ezik, baita SOINU-PAISAIA⁷ ere. Izan ere, ipuin-kontaketa batean, entzuten den guztia da garrantzitsua, ez bakarrik kontalariaren hitza (esan nahi da kontatzeko lekuan bertan entzuten den soinu-paisaia). Modu honetan, ipuinak eduki lezake gorputz gehiago eta, noski, misterioa, ikusezina ikusgarri bihurtzen duelarik.

-Beste adibidea: demagun ni ospitale batera noala kontatzera. Bada, ez naiz hasiko orain hemen hasi naizen bezala kontatzen. Hobe izango dut gaixoaren IZENA aipatzen hastea, erizainek dakiten bezala eta hobeto komunikatuko gara: "*Egunon, Joxe; arratsaldeon, Maria; kaixo, Luix Mari; aupa, Prantxixka...*". Erizainek ere berdin egiten dute gaixoaren hurbiltasun eremuan sartzeko. Beharbada, horregatik ikusiko duzue idatzia beti gaixoaren izena paretetan. Izan ere, izenen bitartez, jendea kontuan har dezakezu edo onartu. (Txillida⁸ eskultoreak esaten zuen: "*Marra batean mundua batzen da, marra batez mundua zatitzen. Marraztea da ederra eta izugarria*". Halaber, hitzak: hitz bakar batez komunikazioari atea zabal diezaiokezu, eta hitz bakar baten bitartez komunikazioari atea itxi).

-BERTAKO LEKU baten izena (bertako izenak) erabil ditzaket hurbiltasuna areagotzeko. Esaterako, Villabonan: Errebote plaza. Bermeon: Aritzatxu. Zestoan: Lau Itturri. Baranbion: Garrastatxu. Ikastetxean: gelako objektuak, arbeleko zirriborroa edo andereñoaren izena.

(Donostiako zinemaldian, esaterako, *eskerrik asko* esaten badu kanpotik etorri den zinema-zuzendari batek, edo "*arratsaldeon Donostia, mila esker denoi*", garbi dago lotura afektibo handiagoak lortuko dituela entzulearengan).

-MOMENTUKO GERTAKARI SOZIALAK ere erabil ditzaket: dela tsunamia, krisia, Eguberriak...; edo dela herriko gertaera ezaguna.

-Lekuan lekuko HITZAK ere bai. Esaterako, Oiartzunen: goitik behera / *gotti betti* / Bizkaian: *elkarrekin* / elkarregaz; kilkirra / *txirri-txirria*; mariozratza / *txitxiburduntzia*; jolasten / *olgetan*; Marrubiak / *mallukixak*...

⁷ Hildegard Westerkamp. "Soinua paisaiaren barrutik hizketan". *Zehar* 67, 2011ko irailaren 2an,

66-78 or. Gipuzkoako Foru Aldundia.

⁸ MARTINEZ, F. (1998). *Palabra de Chillida*. Bilbao: Eusko Jaurlaritza, 49 or.

-Edota HIKA erabili. Errezilera joanez gero, edo Azpeitira, gehiago sar dezaket hika. Badakit ez dela haien hika, baina nire Gipuzkoako hitza erabilia badakit iritsiko naizela. Goizuetara joaten banaiz eta erabiltzen badut "*hi, aizak, etoryi hona*", badakit iritsiko naizela.

-ELIPSIA. Zestoa batean erabil dezaket elipsia nahikoa zorrotz. Orain, Bilbo batean zailagoa izango da, eta gutxiago erabiliko dut.

-HAURRAREN ERREGISTROA kontuan har dezaket. Agian, haurrak erabili badu momentuan *perroa hitza*, nik ere hartu dezaket hitz bera, *perroa*, eta gero, ondorenean, sinonimoa gehitu: *txakurra*. Eta handik aurrera *txakur* hitza erabili.

-SINONIMOAK erabiltzea ere, bistan da, oso garrantzitsua dela.

-ENFATIZAZIOA. Giro oso erdalduna bada, gehiago markatu dezaket egoera jakin bat, entzulea hobeto koka dadin egoera bakoitzean. Esaterako, baldin banago Otxarkoagan, agian, momentu batean "*Hi, txikito*" erabil dezaket, ondo markatuta eta enfatizatuta. Barre eta dena egingo dute. "*Hi, txikito, Tonto mukizu arraioa, kaiku buruhandia, demonio asto putza*". Nahiz eta hitz batzuek ez ulertu, testuingurua ondo markatuz gero, badakit iritsiko naizela.

-Edota ERREPIKAPENA erabilia. Iazko jardunaldietan, Itsaso Arrietak⁹ zioen bezala, Kilito poeta arabiarraren hitzak erabiliz: "*Hizkuntza baten bizia errepikapena da; hizkuntza eta kultura baten bihotza errepikapena da*". Areago, baldin eta haur erdaldunengana iritsi nahi badugu.

-ONOMATOPEIAK: *risti-rasta, danba-danba...*

-ORAINALDIA erabilia, lehenaldiaren orde.

-KEINUAK ZEIN IMINTZIOAK erabiliz, giroa zurruna delako, eta mugimendu gehiago eskatzen duelako uneak

-Edota EZ HAIN ESPRESIBOA izatea. Giroa oso jasoa izanik, ez duelako behar giroak gehiago, oso sotila izatea baizik.

-PAUSA luzeagoak egitea, arnas uneak...

-KONTRASTEAK sortzea, ahotsaren bolumenean zein erritmoan, oso giro dispertsoa delako eta arreta piztea komeni zaigulako.

⁹ ARRIETA, Itsaso. "Herri kantuen interpretazioa. Ahozko tradizioaren atzetik", 68. or. *Ahoa bete hots II. jardunaldia* (2012). Andoain: MIntzola Fundazioa eta Bertsozale Elkarte

Izan ere, kontuak presentean jakin behar du sustraitzen. Horretarako momentua ondo entzutea ezinbestekoa da, eta entzuleari tankera hartzea, hots, giroari, *rasari*, Koldobika Jauregi eskultoreak zioen modura. Behin giroari tankera hartuz gero, giroaren arabera, eta entzulearekin hobeto komunikatzeko, erregistro batzuk aukeratuko ditugu eta alde batera joko dugu edo bestera, azkarrago kontatuko edo motelago, gehiago markatuko egoera, sinonimoak erabiliko, edo hika sartuko. Kontalariak ezin baitu berak bakarrik gidatu kontua; ezinbestekoa zaio jartzea giroaren, entzulearen eta momentuaren zerbitzura.

Eta orain pasa gaitezen hurrengo puntura.



KONTAKETAREN ERRITMOA

Jexux Eizagirrrek¹⁰ bere *Erritmoa*, kazetariaren batuta izeneko liburuaren aurkezpenean, hara zer zioen: "*Kazetariak lortu behar du irakurlea adi izatea. Nola egin hori? Erritmoaren bitartez. Hiztun onenek egiten duten bezala. Adibidez Sebastian Salaberriak egiten zuen bezala edo Julio Cortazarrek. Ahozko kontalariak sekulako erritmo aldaketak egiten dituzte, konturatu gabe, jakina*".

Behin puntu honetara iritsita, jakin ezazue irakasleengan aurkitzen dudana

¹⁰ MUGA, Aitziber. "JEXUS EIZAGIRRE *Erritmoa*, kazetariaren batuta liburuaren idazlea". *Noticias de Gipuzkoa*, 3 noviembre 2012.

hutsunerik handiena, ipuin kontaketari dagokionez, honetan datzala: erritmoan. Irakasle asko aritzen baita etenak sortzen kontzeptuak erakustearren haurrei, irakaspenak eman nahian. Zoritxarrez, haria galtzen dute, tentsio narratiboa, emozioa eta abar, eta horrela ezin dugu emozionatu haurra, ezin limurtu, ezin liluratu. Gauza bat erakustea baita eta bestea kontatzea. Eta kontaketa esperientzia, besteak beste, erritmoaren esperientzia da; hau da: haria galdu gabe aritzea, etenik gabe, jarioan, arnasa onean.

Horregatik, kontatzeko momentuan, garrantzitsua da erabakitzea zein ordena edukiko duen kontaldiak, tentsio narratiboa mantendu dezan bizirik kontalariak. Lehendabiziko kontu lirikoa kontatuko dut, barregarria edo dramatikoa? Nola sortuko dut kontrastea? Klimaxa non? Eta zer erabiliko dut kontatzeko, arretarik gal ez dezaten? Irudiak erabiliko ditut? Ipuin dramatizatua? Errepikatua? Eta nola bukatuko dut? Erritoren bat erabiliko dut? Giltza jakina ipuina irekitzeko eta bukatzeko? Giroa oso trinkoa baldin bada, eta zaratatsua, beldurrezko ipuina kontatzea merezi du? Barregarria? Nolako adina izango dute haurrek? Bertan egongo dira 7 urtetik gorakoak edo txikitxoak, 3 urtekoak? Nola iritsi denengana? Hiru urtekoak baldin badaude, agian, oso ipuin kateatua erabiltzea merezi du; bestela haria galduko dute eta ETENA sortuko.

Imanol Urbietak aspaldian aipatu zidan, orain dela 35 urte edo, hasten zelarik kantuan, normalean, ondo komunikatzen zela haurrekin. Baina, erdaldunen aurrean, agudo konturatu zela, kantuan ez ezik, mugimendu gehiago sortu behar zuela arreta mantentzeko eta horretarako dantza ere erabiltzea oso garrantzitsua zela. Eta nik ere gauza bera esan behar dut. Esaterako, adibide bat jartzearren, behin, Otxarkoagako eskola batean, ijitoak nituen. Hasi kontatzen eta ezin komunikatu. Orduan, danborra atera, kantuan hasi, dantzan jarrarazi eta ipuinean sartu ziren erabat. Hura festa! Eta irakasleak harrituak. Inoiz ez omen zuten horrelakorik ikusi. Hura erritmoa! Eta hura arreta! Nahiz eta ipuina ez ondo ulertu, erritmoaren bitartez sartu ziren zeharo.

Beste adibide bat jarriko dizuet. Nik badut liburu bat argitaratua: *Zupankapaloak*¹¹ izena duena. Ba, jakin ezazue *Zupankapaloak* liburuak izugarritzko arrakasta izan duela eta beti erabili izan dudala kontrastea sortzeko kontaldian, atentzioa mantentzeko, erritmoa apurtzeko, eromen puntua sortzeko, eta batez ere tentsio narratiboa mantentzeko giro erdaldunetan.

Leku gehienetara, horregatik, eramaten ditut oso gauza ezberdinak, eta giroaren arabera erabiltzen ipuin bat edo erabiltzen bestea, erritmoa zaintze aldera. Izan ere, kontaketa beti da *performancea*. Zeren leku bakoitzean bere gorputza eta aroma partikularra hartzen baitu. Eta leku bakoitzean beti dago kontrolatzen ez duzun zirrikitu bat, zeinaren bitartez inkontzientea aktibatzen

¹¹ AÑORGA, P. ; MITXELENA, J. *Zupankapaloak*. Oiarzun: autoedizioa, 1999.

zaizun, eta horri esker, momentuan inprobisatzen duzun eta egokitzapenak egiten aritzen zaren. Esther Ferrerek¹² dioskun bezala: *"Zu hasten zara egiten pentsatuta zeneukana, baina, gero, agian, istripua dela eta, performanceak beste bidea hartuko du; baina niretzat istripu hori performancearen parte da. Une horretan gertatzen dena, egitea pentsatuta neukana baina askoz ere garrantzitsuagoa da"*.



¹²SUSAETA, Igor. "Esther Ferrer artista. Inork ez dezala jakin zer den performancea". *Berria*, 2012ko abuztuaren 15ean

JARRERA

Askotan esan izan dut (aipatu ikuspegitik begiratuta) kontaketa bat dela:

-**Maitasun ekintza**: onena saiatzen zarelako eskaintzen, kontuan harturik eta errespetaturik aurrealdean daukazuna, esan nahi da onartuta entzulea (on hartuta).

-Eta da jarduera oso **umila**: jartzen baitzara bestearen zerbitzuan, eta ez alderantziz: bestea zure zerbitzuan. (Umila heldu da *humus* hitzetik eta, kontaketan, nahitaez, *humus* horretatik aritu beharra daukazu: lur beltzetik. Jakin badakigu ipuinak sortu behar duela tenperatura bat, haren suaren ondoan sentitzeko berotuak. Baina, tamalez, batzuetan gertatzen da giro hezea dagoela espazioan, eta ipuinaren egurrak gutxi berotzen duela: kea baino ez duelako sortzen. Eta orduan gertatzen da jakin behar duzula, kontatzen baino areago, isilik egoten. Izan ere, komunikazioa ez dago kontalariaren eskuetan bakarrik. Hori jakitea garrantzitsua da. Kontalaria ez delako zentroa; gehiago da katalizatzailea, bitartekaria.

-Eta da jarduera errukitsuzkoa, **konpasiozkoa**¹³. (Xabier Letek aipatzen zigun *compadecer* hitza, eta aipatzen komunikazioan funtsezkoa dena: zer den izatetik izatera komunikatzea, Emmanuel Lévinas filosofoan oinarrituta: "*Nik begiratzen baldin bazaitut gizakume bat bezala, hau da, ni bezalako bat bezala begiratzen baldin bazaitut, nire begiradak gizatasunean jantzi egiten zaitu, erratifikatu egiten zaitu gizatasunean. Ni saiatzen naiz begiradarekin jendea erratifikatzen, jendeari bere izatea itzultzen eta ematen*".

-Eta da jarduera **ospitalarioa**. Eta zergatik da jarrera ospitalarioa? Bada, saiatzen zarelako saioan giroa sortzen, non onartzen dugun elkar garen bezalakoak. Hori ez al da anfitrioi ona izatea? (Horretarako **gardentasuna lantzea** garrantzitsua da, **konfiantzan** oinarritua dagoen kontaketa, eta ez **beldurrean**, eta juzkuan).

-Eta da jarduera benetan aritzeko (Maialen Lujanbiok behin esan zidan bezala). **Benetakotasunean** ari zaren heinean, sinesgarria izango zarelako, hau da, *egia* azaltzen.

-Eta **entzule** ona izatea. Zeren kontalariak behar du ondo ENTZUN; eta entzuten duen heinean ERANTZUN. (Konturatu, euskaraz, *Erantzun* hitzaren barruan dagoela *entzun* hitza). Erabakiak hartu behar dituzulako momentuan eta jakin joaten zure eta entzulearen artean sortu den erretenetik, momentuan, arriskua hartuta, hots, **erantzukizuna**. Batzuetan asmatuko duzu eta besteetan ez, baina ziur egon, asmatzen baduzu, zerbait gogoangarria gertatuko dela. (Gogoratu

¹³ MUJICA, I. (2012). *Xabier Lete autobiografia bat*. Irun: Alberdania, 167 or.

Egaña bertsolariak konparatu izan duela bertsolaria funambulista batekin. Zeren, kontaktetan, bertsoetan bezala, ezker-eskuinaren tarteko ertz zorrotzetik barrena abiatu behar delako). (Gogora ezazue, *Bertsolari* pelikulan ere non kokatzen den Miren Amuriza bertsolaria: harkaitzaren amildegian). Espazio hori da hutsa, biluzia, konkaboa, eta presentzia dauka (Presentzia presenterekin dago harremanetan, ez ahaztu!). Denbora da eta espazioa: unea zein gunea. (Espazio hori da, hain zuzen, saiatu zena Oteiza eskultorea eraikitzen). Espazio horrek ez dauka paretarik. Harri batzuk ditu gehienez, ipuin batzuk, testigantza batzuk borobilean jesarrita, espazio izugarri ederrera irekita: zerura. Espazio hori da medizina. Espazio horretan, kontalariak eta entzuleak besarkatu dezakete elkar eta biak kontalariak izan, esan nahi da artista: espazio sinplearen sortzailea, espazio biluzia, konkaboa, espazio gardena, espazio horizontalaren zein bertikalaren bidegurutzea, erdigunea, presentea, orainaldia; esan nahi da egiazkoa, benetakoa (esentzia delako: hitz bizia, hots, bisioa).

ETA AHOZKO HIZKUNTZA?

Niretzat komunikazioan ahozko hizkuntzak dauka garrantzi gutxiago orain arte ukitu ditudan alderdiekin alderatuz gero: jarrerarekin, batik bat. Aipatu dizuet, hasieran, ni ez naizela hizkuntzako irakaslea, baizik komunikatzailea, edota saiatzen naizela komunikatzaile izaten, kontakizunak lagun. Eta esperientziak erakutsi dit, Mehrebian¹⁴ psikologoaren ildotik, ahozko hizkuntzak jotzen duela paper txikia komunikazioan (berebizikoa ez, behintzat). Ezagutzen duzue Arruperen anekdota? Indiara joan omen zen hango lider espiritual batzuekin egotera. Arrupek ez zuen ezer ulertzen. Ez zekien, antza, haien hizkuntza. Eta galdetu omen zioten: "*Zer edo zer ulertu al duzu?*". Eta Arrupek erantzun: "*Ulertu ez, baina komunikatu bai*".

Zeren, komunikazioan: jarrera gardena izatea, konfiantza erakustea, ondo entzuten jakitea, entzulea onartua sentitzea, benetan aritzea, elkarrekin arnasa hartzea, erritmoa zaintzea eta abar, oso garrantzitsua baita. Gure eguneroko jardunean, berriz, nago ematen diogula izugarrizko garrantzia hitzari, euskarari, eta ondo dago, baina beste arloak alboratzen baditugu, oso gutxi komunikatuko gara.

Dena den, ahozko hizkuntzari buruz, aipa dezadan zerbait garrantzitsua: hitzekin harreman ona izatea ezinbestekoa zaiola ahoz komunikatzen den bati; eta ezinbestez jakin behar duela hitzak zaintzen, lantzen, olioztatzen eta egokitzen baldin eta momentuari erantzun nahi badio. (Niri, esaterako, bat-batean esango balidate gazteleraz kontatzeko, asko trabatuko nintzateke, mihia lehortuko eta hitzak gogor antzean aterako: bizarrez beteak.)

Kontalaria baita ez bakarrik hitza daukana, **baita hitza dena ere**, edo izan

¹⁴ SERRANO, S. (2003). *El regalo de la comunicación*. Barcelona: Anagrama, 71 or.

daitekeena: esan eta egiten duena. (Euskaraz, ez ahaztu, hitz egiteak horixe esan nahi duela: hitza egitea. Hitza dago, baina egin egin behar da hitza, izan dadin. Esan eta egin. Hitzezkoa izan, alegia). Orduan bakarrik izango da kontaketa gertakaria: momentuan egiten den zerbait. Eta hurbilduko da hitzaren jatorrira, *poiesisera*, poesiara, non hitza den, besterik gabe, izateko eta egiteko. Hitza: gauzapena, kreazioa, gertakaria.

Hala, kontalariak erabiliko duen hizkuntza ez da izango inoiz aseptikoa, geza, plastikozkoa, baizik komunikagarria; izango da, agian, jaso, egokia, kolokiala, jergaduna eta abar, baina batez ere izango da komunikagarria; eta izango da medizina indartsua; eta espirituala (gizakiaren alderdi guztiak aktibatze eta esnatze ahalmena duelako); eta izango da artea, esan nahi da malgua, sugea eta erreka bezain irristalaria, jariakorra, orain eta hemen ari dena, bat-batean, isiltasunetik sortua eta isiltasunerantz doana, bizia bezala.